

## EusTET 2024

### Euskara-teknikari eta trebatzaile izateko ikastaro trinkoa

#### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Irailaren 9tik 21era	<b>IRAKASLEAK</b>	Labayru Fundazioko lau teknikari esperientziadun
<b>ORDUTEGIA</b>	Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00 eta 16:00-18:00 eta larunbatetan 09:00-13:00	<b>MATRIKULA EPEA</b>	Ekainaren 1etik uztailaren 30era
<b>TOKIA</b>	Labayru Fundazioa Bilbo-Galdakao errepidea 6A Bilbo	<b>MATRIKULA NOLA EGIN</b>	944 437 684 <a href="mailto:labayru@labayru.eus">labayru@labayru.eus</a>
<b>NORENTZAT</b>	Euskara-teknikari edota trebatzaile- lanetan hasi berriak direnak edo ibili nahi dutenak.	<b>PREZIOA</b>	510 €

#### PROGRAMA

##### Administrazioa eta euskara

- Trebatzailearen lana.  
Zer da eta nola antolatu trebakuntza?
- Administrazioko idazkiak.
- Estilo-arazoak eta ohiko gramatika-akatsak.

Lehenengo atal honetan, ikasleak trebatzaileen mundura hurbilduko ditugu. Trebakuntza zer den eta administrazioko entitate baten trebakuntza-plana nola antolatzen den ikasiko dute.

Horrez gain, trebakuntzako edukiak landuko dira: administrazioko idazkiak zelan egituratu ikasiko dute, administrazioko testuak idazteko eta itzultzeko estilo-aholkuak emango dizkiegu, eta ohiko gramatika-akatsak zuzentzeko bideak irakatsiko dizkiegu. Izan ere, trebatzaileen lana da erakunde publiko zein pribatuetako langileei euren egunerokotasunean erabiltzen dituzten idazkiak euskaraz zelan egituratu eta zelan idatzi irakastea.

## Hizkuntzaren normalizazioa

1. Euskara Planak.
2. Dirulaguntzak.
3. Euskararen kalitate ziurtagiriak.
4. Euskara-elkarteen egitekoa.

Bigarren atalean, ikasleek euskararen erabileraren normalizaziorako dauden planak sakonean ezagutuko dituzte:

- **Udal eta bestelako administrazio publikoetako erabilera planak:** udalaren beraren normalizazio-planak, hau da, udalak berak euskaraz (ere) funtziona dezan lortzeko planak (baita beste erakunde publikoetarako ere).
- **ESEP / AROA:** udalak herriari eta herritarrei begira egiten duen plana, herritarrak euskaraz bizi ahal izateko, alegia, euskarazko zerbitzuak eskaintzeko plana.
- **Enpresetako euskara planak:** enpresa pribatuetan zein publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko planak.
- Bestelakoak: Kirolean Euskara Sustatzeko Plana, eskolaz kanpokoan diagnosi-tresna, mikroplanak...

Horrez gain, bestelakoak ere ikusiko dira:

- Euskara planetan inplikaturik dauden agenteak, erakundeak, sailak...
- Euskara normalizatzeko **dirulaguntzak**.
- Euskararen kalitate-ziurtagiriak: **Bikain**, Bai Euskarari.
- **Euskara-elkarteen egitekoa:** euskara-elkarteen helburuak, planak, proiektuak, baliabideak... herrietan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko.

## METODOLOGIA

---

Ikastaro teoriko-praktikoa da. Ikasgai guztietan teoria eta praktika uztartuko dira; baina kasu errealean azterketan eta ariketa praktikoetan indar egiten da.

Bukaeran, talde txikitan, **lan praktikoa** aurkeztu behar dute ikasleek: edukiak bereganatu direla bermatzeko proiektua. Hori da, eskoletan egindakoaz gain, ebaluatzeko erabiliko dena.

Proiektua gainditu eta asistentziaren %80 bete ostean, EusTET egiaztagiria ematen du Labayru Fundazioak.

## LAN-POLTSA

---

Normalizazio-planak gero eta indar handiagoa hartzen doaz, gero eta lan handiagoa dago arlo horretan; horregatik, gero eta euskara-teknikari eta trebatzaile gehiago behar dira, bai euskara batudunak bai bizkaieradunak. Hori dela eta, **Labayruk lan-poltsa zabalduko du ikastaroen amaitzen dutenentzat**. (Oharra, azken 4 urteetan ikasleen %40 kontratatu ditugu).